



Esp. kodea: 2016ZZER0164
Titularra: OZMA

Gaia: Hitzarmena "Mondragon Goi Eskola Politeknikoa"rekin, Iturripeko pilotalekua garbitzeari dagokionez.

HITZARMENA

Arrasaten, 2016ko irailaren 30ean.

ELKARTURIK

Alde batetik, MARIA UBARRETXENA CID andrea, Arrasateko Udaleko alkatea.

Bestetik, CARLOS GARCÍA CRESPO jauna/andrea, 30.627.545-D NAN zenbakia duena, "MONDRAGÓN GOI ESKOLA POLITEKNIKOA JMA S.COOP" elkartearen izenean, F20045241 CIF zenbakia duena.

Biek beren karguei dagozkien eginkizunak betez, dokumentu hau egiteko gaitasun osoa aitortzen diotelarik elkarri, eta

ADIERAZTEN DUTE

- I.- Arrasateko Udalak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak berezko garrantzia ematen diotela bakoitzari dagozkion esparru eta instalakuntzak behar den bezala mantendu eta garbi izateari.
- II.- Arrasateko Udalak 2016ko uztailaren 12ko osoko bilkuran behin-betiko izaeraz onartu zuela "Kale Garbiketa Ordenantza" eta arau hau dela ardatz nagusia herriko kale garbiketa aurrera eramateko.
- III.- Arrasateko Udalak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak elkarlanean egingo dutela, eta bat datozela Arrasaten oro har garbitasunaren kultura sustatzeko eta bereziki, hitzarmen honen arabera, Iturripe kiroldegiko ingurua pintadaz garbi izateko.

KLAUSULAK

Lehena.- Arrasateko Udalak konpromezua hartzen duela Iturripe kirol instalakuntzen udal esparruan agertu daitezkeen pintadak 5 eguneko epean kentzera.

Bigarrena.- Mondragon Goi Eskola Politeknikoak konpromezua hartzen duela Iturripe kirol instalakuntzen esparruan ikusten dituzten pintaden berri Arrasateko Udalari jakinarazten.

Hirugarrena.- Nahiz eta hitzarmen honek arautzen duen garbiketa gunea Udal jabetzakoa izan eta Arrasateko Udalari egokitu, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak bere instalakuntzen inguruko txukuntasuna helburu



Esp. kodea: 2016ZZER0164
Titularra: OZMA

Gaia: Hitzarmena "Mondragon Goi Eskola Politeknikoa"rekin, Iturripeko pilotalekua garbitzeari dagokionez.

izanik, konpromezua hartzen du Iturripe pilotalekuan udal esparruan pintadak kentzen Udalak gastatzen duenaren %eko 40ari aurre egiteko, beti ere urteko 2.000 €ko muga gainditu gabe.

Laugarrena.- Arrasateko Udalak konpromezua hartzen du, urtero, azaroa amaieran, aurkeztuko diola Mondragon Goi Eskola Politeknikoari, urtean zehar garbitu diren pintaden informazio grafikoa, garbiketa kostuak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoari likidatzen zaion kopurua.

Bosgarrena.- Mondragon Goi Eskola Politeknikoak konpromezua hartzen du, urtero, abenduan zehar, ordainduko diola Arrasateko Udalari Iturripe kirol instalakuntzen udal esparruaren pintaden garbiketan ordaintzea suertatzen zaion kopurua.

Seigarrena.- Edozein alde beteko ez balitu hitzarmenaren arabera egitea dagozkion betebeharrak, hitzarmenaren beste aldeak, hitzarmena bertan behera lagatzeko eskubidea izango du.

Zazpigarrena.- Alde biek ahalmena izango dute hitzarmenaren helburua lortzeko, egoki ikusten dituzten jarraipen eta kontrol tresnak erabiltzeko.


Zortzigarrena.- Hitzarmenaren edozein aldaketak alde bien adostasuna eskatuko du.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honen iraupena urte betekoa izango da, sinatzen den unetik hasita, urtez urte banaka luzagarri, gehienez lau urteko iraupenarekin.

Eta aurreko guztiarekiko adostasunaren adierazgarri, bi alderdiek bi ale izenpetzen dituzte idazpuruan aipaturiko lekuan eta datan.

ARRASATEKO UDALA

Izpta.: MARIA J. BARRETXENA CID



MONDRAGON GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA JMA, S COOP

Izpta.: CARLOS GARCÍA CRESPO

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITECNICA
SUPERIOR